

B A T X I L E R G O I K A S T O L A



Hezkuntza Proiektua



HEZKUNTZA PROIEKTUA.

AURKIBIDEA

1. SARRERA/AURKEZPENA	2. or
2. NORTASUNA ETA EZAUGARRIAK	3. or
2.1. IKASTOLAREN IZAERA.	
2.2. CURRICULUMAREN PRINTZIOAK	
2.3. ANTOLAKUNTZA-EGITURAREN PRINTZIOAK	
2.4. PROZESUEN KALITATEA BERMATZEKO PRINTZIOAK	
3. HEZKUNTZA EREDUA	8. or
3.1. IKASLEAREN IRTEERA PROFIL OROKORRA	
3.2. IRAKASLEAREN PROFIL OROKORRA	
3.3. FAMILIA ETA GIZARTE HEZITZAILEAREN ERAGILE EREDUA	
4. GOBERNU ETA FUNTZIONAMENDU EGITURA	15. or
4.1. ORGANIGRAMA	
4.2. PATRONATUA	
4.3. ESKOLA KONTSEILUA	
4.4. LEHENDAKARIA	
4.5. GURASO BATZORDEA	
4.6. HAURTZARO-ORERETA-OIARTZO KOORDINAZIO TALDEA	
5. KUDEAKETA-EGITURA	21. or
5.1. ZUZENDARIA	
5.2. IKASKETABURUA	
5.3. ORIENTAZIOBURUA	
5.4. ZUZENDARITZA TALDEA	
5.5. IRAKASLEA	
5.6. IRAKASLE-TUTOREA	
5.7. KLAUSTROA	
6. FUNTZIONAMENDU ADMINISTRATIBOA	29. or
6.1. ADMINISTRARI BURUA	

1. SARRERA/AURKEZPENA

Hezkuntza Proiektu hau Orereta eta Haurtzaro Ikastolen Hezkuntza Proiektuetan oinarritua dago eta Ikastolen Elkartean hartutako ildotik abiatuko da. Bertan bildu dira gure ikastolan hezkuntzari buruz hartu beharko diren erabaki guztien oinarriak eta, inoiz eskola-komunitate osorako jarraibide izango denez, ikastolako estamentu guztietan adostuko da eta Patronatuan onartuko. Oiartzo Batxilergo Ikastolan indarrean izango da berri beharra ikusten zaion arte.

Oiartzoren helburu nagusiak dira Batxilergo euskalduna, kalitatezkoa eta eskaintza zabalekoa izatea. Hezkuntza Proiektu honetan jasoko dira, beraz, helburu horiek lortzeko egingo diren guztiak arlo pedagogikoan eta gainerakoetan.

Euskal Herriko gainerako ikastola gehienekin Ikastolen Elkartean sartua dago, eta haiek ezarritako ildoetatik dabil Oiartzo ere.

Oiartzo Batxilergo Ikastola 1998 urtean sortu zen fundazioa da. Fundazioko kide Orereta Ikastola eta Oiartzungo Haurtzaro Ikastola dira, %75 eta %25eko jabetzaz, hurrenez hurren, baina ateak zabalik daude edozein erakundek parte har dezan. 16-18 urte bitarteko gazteak hezten dira bertan, nagusiki Orereta Ikastola eta Haurtzaro Ikastolatik etorriak izaten direnak. Eskola pribatu kontzertatua da.

Oiartzo Erretereriako Zamalbide auzoan dago, Orereta Ikastolaren ondoan. Irakasle asko eta zerbitzu guztiak Orereta Ikastolarenak erabiltzen ditu, eta horrek azaltzen du Oiartzok Orereta Ikastolarekiko erakuts dezakeen menpekotasuna.

Bestalde, erabiltzen duen eraikina, Aingeru Guardakoaren etxea deitzen dena, Erretereriako udalarena da. Horrek ere baldintzatzen du eskolaren ohiko jarduna.

Hauek dira Oiartzo Batxilergo ikastolak bere-bereak dauzkan baliabide eta egiturak:

PATRONATUA: Orereta eta Haurtzaro ikastoletako kideek parte hartzen dute bertan. Oreretakoek botoen %75 dute eta Haurtzarokoek, %25.

Patronatua da erabakiak hartzeko eskumena duen erakunde bakarra.

ESKOLA KONTSEILUA: Patronatuko ordezkariak, guraso ordezkariak, zuzendaritzako ordezkariak, irakasleen ordezkariak eta ikasleen ordezkariak parte hartzen dute. Orereta ikastolan “Artezkariak batzordea” deitzen denaren eta Haurtzaron “Kontseilu Erretorea” deitzen denaren baliokidea da.

Kudeatzailea da batez ere, eta, gauza batzuetan, erabakiak har ditzake.

GURASO BATZORDEA: Gurasoek osatua da. Ez dauka erabakitze ahalmenik. Ez da oso egonkorra, izan ere, batxilergoan ikasleek bi urte besterik ematen ez dutenez, beren gurasoek ere beste horrenbeste besterik ez baitute pasatzen hemen.

HAURTZARO-ORERETA-OIARTZO KOORDINAZIO TALDEA (HOO): Hiru ikastolen arteko koordinaziorako sortutako esparrua da. Proposamenak egiten ditu dagokionak erabakiak har ditzan.

ZUZENDARITZA: Zuzendaria, Ikasketaburua eta Orientazioburuak osatzen dute.

KLAUSTROA: Oso irakasle gutxi dira Oiartzo Batxilergo Ikastolan bakarrik dihardutenak. Irakasle askok beren lanaldiaren zati bat Orereta edo Haurtzaro ikastoletan betetzen dute.

Oiartzo Batxilergo Ikastolak gainerako baliabide guztiak Orereta ikastolarenak erabiltzen ditu. Alegia:

BULEGOA ETA BERTAKO LANGILEAK
ZERBITZUETAKO LANGILEAK

2. NORTASUNA ETA EZAUGARRIAK

2.1.- IKASTOLAREN IZAERA.

A. Oiartzo bere berriazko nortasun juridikoa duen eskola erakundea da, euskal gizarteak hezkuntzarengan jarriak dituen ideien eta itxaropenen adierazpenetako bat, gizarte titularitatea duena, irabazi asmorik gabekoa eta ekimen herritarraren fruitu dena.

B. Oiartzo ikasleek, gurasoek, langileek eta laguntzaileek osatutako hezkuntza komunitatea da eta bere bizkarrezur den ardatza, bere berriazko hezkuntza proiektu euskalduna da, curriculum proiektua eta hizkuntza proiektua bere barnean dituena.

C. Oiartzo elkarlan bidez kudeatutako antolakuntza da, bere joko arauak ditu eta hezkuntza proiektuarekin konprometituta dauden langileek bultzatua da.

D. Oiartzo berak jarduten duen gizarte, kultura eta ekonomi ingurunean kokatu eta txertatutako erakundea da eta elkarreragineko egintzen bidez ingurune hori eraginez, ikastola/herri/auzo/hiri arteko harremana aberasten du, aldi berean ikastola herri/auzo/hiri horretako partaide bihurtuz eta alderantziz, herri/auzo/hiri hori ikastolako partaide eginez.

E. Oiartzo ikastolen kolektiboarekiko elkartasuna duen unitatea da eta Euskal Herriko ikastolen sarea garatzeko eta bertako partaide eraginkor izateko konprometitua da.

F. Oiartzok bere berriazko hezkuntza proiektua du eta proiektu horren barne ditu curriculum proiektua eta hizkuntza proiektua; alde batetik ikastolen kolektibo osoaren elementu komunak ditu bere baitan eta, aldi berean, baita ikastola bakoitzak bere ezaugarriengatik, bere gizarte eta kultur ingurunearengatik edota bere testuinguru politiko-administratiboarengatik dituen elementu espezifikoak ere. Hezkuntza proiektu hori hezkuntza komunitateak onetsi eta eguneratua da, ikasleek, beren familiek eta langileek, onartuak dituzten gobernu eta funtzionamendu organoen bitartez, partaidetza eragilearekin bere garapenean parte hartuz.

G. Oiartzoko irakasle taldeak, bere jarduna garatzen duen hezkuntza maila eta curriculum esparrua edozein izanik ere, hezkuntza konpetentzia orokorrak bere irakasle eginkizunetan txertatzen ditu oinarritzko konpetentziak erdiesteko asmoz.

H. Hezkuntza konpetentzia orokorrak lortzeko ardura, irakasleen, gurasoen eta ikasleen (hezkuntza komunitatearen) arteko elkarlan partekatuarena da, eta horrek gizartearen eta hedabideen elkarlana ere eskatzen du.

Ikastolen kolektiboaren izaera komuna

A. Ikastolek hezkuntza sarea eratua dute, ikastolen titularren antolakuntza alegia, beren proiektu komuna garatzeko, ikastola bakoitzari bere berriazko proiektua garatzen laguntzeko, ikastolak kolektibo gisa ordezkatzeko eta hezkuntza euskalduna ikastolen esparrutik harago eragiteko.

B. Ikastolen kolektiboak Euskal Herriarekin, Euskararen Herrialdearekin, identifikatzen du bere jardura esparrua eta hizkuntza komunitate orok bere kultura ondarea muga administratiboetatik harago transmititu ahal izateko irakaskuntza antolatze duen eskubidearen arabera jarduten du.

C. Ikastolen kolektiboa lankidetzaren bidez kudeatutako antolakuntza da eta bere berriazko joko arauak ditu, ikastola bakoitzeko hezkuntza komunitateak bultzatutako elkarketa eta ekimen bidezko kultura baten fruitu dena, hezkuntza proiektu komunarekin konprometituta dauden kolektiboko profesionalek bermatu eta bultzatua.

D. Ikastolen kolektiboa, duen izaera herritarra dela bide, subjektu eraginkor eta lankide da Euskal Herriaren garapenean eta bere berariazko hezkuntza sistemarenean, Euskararen garapenean eta bere kulturarenean, beste gizarte, hezkuntza eta kultur eragile batzuekin batera dihardu eta bere lehentasunezko egitarauak, Euskal Curriculumaren definizioa eta aplikazioa, Euskal Eskola eta Euskal Unibertsitatea dira. Horretarako, euskal hezkuntza sistemaren kontzeptu berri bat garatzen ari da, gaur egungo administrazio zatiketetatik eta botere publikoen mendekotasunezko eredu publikoetatik harago doana eta gaurko estatuen eredu publiko administraziozaleekiko aukera berri bat eskaintzen duena.

E. Ikastolen kolektiboak oinarrizko curriculum komuna partekatzen du, eta curriculum horrek bere hezkuntza ereduari eta euskal curriculum espezifikokoari dagozkion edukiak islatzen dituzten adostutako lerro nagusiak ditu bere baitan

F. Ikastolen hezkuntza sareak bere berariazko zerbitzu kolektiboen multzoa du.

F.1. Ikastolen arteko komunikazio estu eta sendoarekin antolatuta dago sarea eta horrek ematen ditu ezagutzera testuinguru zehatz bakoitzean sortzen diren beharrianak eta eskatutako zerbitzu kolektibo gisa identifikatu, planifikatu, garatu eta inplementatzen direnak, gero beren emaitzen berri emanez.

F.2. Zerbitzu horiek ikastolek onetsi eta ebaluatuak izaten dira adostutako gobernu organoen bidez egindako partaidetza eragilearen bitartez, izan ere, organo horietan esku hartzen baitute ikastolek hautatutako ordezkariak eta izendatutako eginkizunen betekizunak ebaluatuak izaten dira.

F.3 Beren irispenaren arabera, zerbitzu kolektiboak ikastoletara bakarrik bideratuko dira edota hezkuntza euskalduna eragiteko ikastoletatik harago doan hedapena izateko burutuko dira.

F.4 Zerbitzu kolektiboen ikerkuntza-, garapen-, berrikuntza- eta kudeaketa-lanak, beren konpetentziari, ikastolen izaera, misio eta ikuspegi komunetikiko nahiz erabakitako planak betetzeko eta gobernu-organoeekin elkarlana egiteko duten konpromisoa gehitzen dioten profesionalen bitartez egiten dira.

2.2. CURRICULUMAREN PRINTZIBIOAK

Oiartzoko curriculumaren printzipioak ikastolen kolektiboak bere VI. batzarrean onartutakoak dira. Alegia:

A. Giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen bultzatzaile.

Oiartzok bere egiten du Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalaren (1948) 26. artikularen edukia, hain zuzen ere honako hauek dakartzana: hezkuntza eskubidea eta obligazioa; giza nortasuna bere osotasunean garatzeko helburua eta giza eskubideekiko eta oinarrizko askatasunekiko errespetua sendotzea; eta familiak lehentasun osoz beren seme-alabei eman nahi dien hezkuntza mota aukeratzeko duen eskubidea.

B.- Eskola barneratzailea edo denentzako eskola.

Oiartzo, gaur egungo euskal gizarteak ezaugarritzat dituen kulturantzaren eta ugaritasunaren testuinguruan eta hori ugaltzeko dagoen joeraren aurrean, denentzako izango den eskola barneratzaile eta anitzarekin identifikatzen da, Euskal Herrian presente dauden genero, balore, gizarte portaera, portaera politiko eta erlijiosoak beren barne hartuko dituenarekin alegia eta eredu hori konpentsatzaile gertatzen da sortzen dituen ikasketa zailtasunekiko, irekia jatorri, gizarte maila nahiz ekonomia maila desberdinetako pertsonentzat

eta aukera berdintasuna ziurtatzeko ahalegina egiten du, bertan dabilzan ikasleek, trinkotuta eta Euskal Herrian eta European txertatuta nahiz munduarekin harremanetan egongo den euskal gizartean bizitzen jakin dezaten.

C.- Pertsona eta gizarte eredia.

C.1. Hezkuntza jardunbidearen helburua gizakiaren konpetentziak mailarik handiengan garatzea lortzea dela ulertzen dugu, bere izaera hirukoitz eta bereiztezinean: norbanako subjektu gisa, gizarteko kide edo partaide gisa eta naturako partaide gisa. Ikuspegi horretatik esan daiteke, hezkuntzaren helburuak lortu izana adierazten duten parametroak, hau da, heldutasuna eta bizitza betea bezalakoak, norbanako subjektu moduan konpetentzien garapenean lortutako mailak eta gizartearen garapenean eta hobekuntzan izandako txertakuntzak, identifikazioak eta elkarlanak nahiz natura zaintzeko eta berari eusteko egindako ekarpenak zehaztuta datozela.

C.2. Bizitza osorako hezkuntzaren ikuspegi integral hori erdiesteko asmoz, Oiartzok Euskal Curriculumean definitutako hezkuntza konpetentzia orokorren garapena bultzatuko du, hala nola, ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, norbera izaten ikastea eta egiten eta ekiten ikastea, guztiak ere diziplina esparru guztietan eta bizitzaren esperientzietan txertatuz, horrela, bizitzarako beharrezkoak eta ezinbestekoak diren oinarrizko konpetentziak lortzeko, Europako Parlamentuaren gomendioetan definitutakoaren arabera.

C.3. Oiartzok oinarrizko heziketa eta bizitza osorako prestakuntzaren oinarriak finkatuko ditu, pertsonaren garapen osoa besarkatuz, beste prestakuntza maila batzuetarako eta lan-mundurako sarbideak irekitzeko, eragile ekintzaileak eta profesionalak, ekonomikoak eta sozialak izateko, bere bizitza zentzuz bideratzeko, eta bere etorkizuna arduraz hautatzeko gai izan daitezzen.

C.4. Zientzia ezagutzen garapena eta tresna teknikoen ekoizpena, nahiz informaziorako eta ezagutzarako sarbidea indar handiko berrikuntza eta aldaketa elementu diren gizartean, Oiartzok beren osotasunezko hezkuntzaren planteamenduan, Zientzien eta Teknologiarekin nahiz IKTren esparruetan konpetentziak garatzea sartu ditu, beti ere ikuspegi kritikoa landuz.

C.5. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko hezkuntzako elkarbizitzaren eredu baten oinarri gisa, eskubideetan genero berdintasuna aldeztuko duten jarrerak eta portaerak bultzatuko dira.

D.- Euskal eskola

D.1. Komunitate edo herri orok, bere kultura bere luze-zabal osoan gorde, bizi, birsortu eta garatzeko nahiz bere kideei familiaren, eskolaren eta gainerako hedabideen bitartez transmititzeko eskubidea eta betebeharra ditu. Oiartzo euskal hizkuntza eta kultura transmititzeko, erabilpen eraginkorra egiteko, garatzeko eta indartzeko konpromisoarekin sortu zen eta hori du ezaugarri. Horrela, eta eskubide hori gauzatzen duelarik, beste kultura batzuei ere irekia dago, ukipeneko auzo-kulturei batez ere, eta kulturartekotasunezko hezkuntza planteamenduak era osasuntsuan gauzatzen ditu.

D.2. Oiartzok, euskal hizkuntza eta kultura erreferentzi ardatz moduan hartuta, hizkuntzen eta kulturen ikuspegi integratzailea eragiten du eta hizkuntza eta kultur konpetentziak osagarritasun ikuspegiarekin ulertzen ditu.

D.3. Oiartzok Euskal Herria Euskararen Lurralde gisa hartzen du, bere historia Pirinioen bi isurialdeetan hedatzen den mendebaldetik mugarik gabeko jendez osatutako espazio unibertsalera irekita ekarpen desberdinekin eraiki duen eta eraikitzen ari den

lurralde gisa, etengabe berritzen eta aberasten ari diren hizkuntza eta kultur arrasto berezietan oinarritua dagoen herri gisa.

D.4. Oiartzok, bere hezkuntza lana gauzatzeko, Euskal Herria izena, Euskaltzaindiak 2003. urteaz geroztik erabiltzen duen zentzu berean erabiltzen du, hots, Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak, Lapurdik, Nafarroak (Behereak eta Garaiak) eta Zuberoak osatzen duten lurralde multzoa identifikatzeko.

2.3.- ANTOLAKUNTZA-EGITURAREN PRINTZPIOAK

Oiartzo antolatuta dago ikastolen kolektiboaren antolakuntza-egituren printzipioen arabera. Hauek dira aipatutako printzipioak:

A. Lankidetzaren eta elkarmendekotasun printzipioa

Oiartzo gainerako ikastolekin elkartuta dago hezkuntza sare bat eratuz eta elkar sendotzeko. Hala, beren artean ezarritako elkarmendekotasun eta lankidetzaren loturei esker, ikastolen kolektiboa eta Oiartzo beraren arakastak loturik daude.

B. Elkarlotura eta artikulazio printzipioa.

Ikastolen kolektiboak dinamizatu egiten du bere hezkuntza sarea (ikastola bakarrak, lurraldeko ikastolak eta lurralde desberdinetako ikastolak) bere maila guztietan ongi elkarlotuta eta artikulatuta egon dadin eta, horrela, ikastolen arteko informazio eta komunikazio harremanen fluxua norabide guztietan gauzatzen da.

C. Aniztasun eta malgutasun printzipioa.

Ikastola bakoitza berezia da eta ikastolen estatus juridikoak errealitate juridiko administratibo desberdinek baldintzatuta dago. Ugaritasun horretatik abiatuta, egoera desberdin eta aldakorrei malgutasunez egokitzeko Oiartzok duen ahalmena batetik, eta malgutasun eta ugaritasun horiek, bai antolakuntzan eta baita zerbitzuen arloan ere, Oiartzoren berezitasunei egokitzuz eta doituz etengabe ari den berariazko hezkuntza sare batean sartuta egotea bestetik, ikastola kolektiboaren garapena eusgarri izateko bermerik onenak dira.

D. Etengabeko hobekuntzaren printzipioa.

Ikastolen kolektiboak etengabe aldatzen ari den munduan era jarraituan ikasi eta berritzeko gai izango den eta aldaketarako, berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako prestatutako hezkuntza sare eran jardungo duen egituraren aukera egiten du.

E. Enpresa zentzuaren printzipioa.

Ikastolen kolektiboak eraginkortasun irizpideak erabiltzen ditu iritsi nahi dituen emaitzak lortzeko, bai elkartutako ikastolen beharrianak asebetetzeari dagokionez, bai gainerako bezeroei erantzuteari dagokionez eta baita bere berariazko kudeaketa sistemari erantzuteari dagokionez ere.

F. Tokiko elkarreraginaren eta elkarreragin unibertsalaren printzipioa.

Ikastolen kolektiboak lankidetzaren harremanak eta itunak ezarriak ditu hezkuntza, kultura eta gizarte arlo desberdinetako beste agente batzuekin, beti ere interes komuneko proiektuen eta egitarauen garapenaren inguruan. Horien artean lehentasunezkoak dira egitarau hauek: tokian tokiko arloan Euskal Curriculum, Euskal Eskola eta Euskal Unibertsitatea eta arlo unibertsalean, beren hizkuntza duten eta/edo beren hezkuntza sistema izan nahi duten herri eta nazioetako elkarte eta erakundeekin, Europako Batasunaren esparruan arreta berezia jarritz.

G. Elkarteko bazkide den ikastolari arreta eskaintzeko printzipioa.

Ikastolen kolektiboa sentibera da elkartekoa den ikastola bakoitzarekiko eta berarekin lankidetzan doitzen ditu bere zerbitzuak haren berezitasunetara.

2.4. PROZESUEN KALITATEA BERMATZEKO PRINTZPIOAK

Oiertzo Ikastolako hezkuntza integrala da, baloreetan oinarriturik dago, bere inguru hurbilean txertatua eta Euskal Herria ardatz nagusia duena.

Oiertzok kalitatea bilatzen du hezkuntza integral horretan. Horretarako helburuak garbiak eta adostuak izateaz gain, hura aurrera eramateko eta Ikastolak irudi erakargarria izan dezan, irakasleen prestakuntza etengabea eta profesionaltasuna bultzatzen ditu ikasleak oinarritzko kompetentzien jabe izan daitezen bermatzeko, eta aldi berean langileen arteko giro onari eta eraginkortasunari garrantzia ematen die. Hori guztia aurrera eramateko, Hezkuntza Komunitatearen estamentu guztien partaidetza bultzatu eta bermatzen ditu.

3 . HEZKUNTZA EREDUA

Oiartzo Batxilergo Ikastolan derrigorrezko hezkuntzaren ondorengoa besterik ez da egiten, garbi dagoenez. Oiartzora datozen ikasleak, oro har, Orereta Ikastolako eta Haurtzaro Ikastolako ikasle izanik, aipatutako ikastolen hezkuntza proiektuetan definitzen diren irteera profila daukate.

Baina horrek ez dakar, noski, Oiartzok irteera profil propiorik ez izatea.

3.1. IKASLEAREN IRTEERA PROFIL OROKORRA

Oiartzoko zereginaren xedea da ikaslea bizitzarako prestatuta egotea hemendik ateratakoan. Ikasleak prest atera behar du, ez bakarrik bizitzako jarduera batzuetarako (akademikoa edo lan mundukoa), baizik eta den edozein jarduera eremutan sor dakioken edozein arazori eraginkortasunez irtenbidea bilatzeko, beti ere irizpide etiko batzuek sakonki barneratuak dituela, eta baita munduan euskaldun izatea egokitu zaiola eta horrek dakarren munduan egoteko modua ere.

Oiartzotik ateratzen den ikasleak oinarrizko gaitasunak eskuratuak izan behar ditu datorkionari aurre egiteko.

3.1.1 Oiartzoko ikaslearen irteera profil orokorra

Ezaugarri hauek izatea bilatzen da:

- Nork bere burua ezagutzeko nahia duena, eta ingurua ulertzeko informazioa lortzeko gaitua.
- Esperientzia eta praktikatik lortutako ezagutza sistematizatzeko gai dena.
- Ikuspegi subjektiboen gainetik, objektiboak eraikitzekeo gai dena behaketen eta ikerketen bitartez.
- Prozesu konplexuak ulertzeko gai dena.
- Familiar, lagunartean nahiz eskolan gerta dakizkiokeen gatazkak kudeatzen dakiena.
- Norberaren mugak ezagutzen dituen, autoestimua gutxitu gabe.
- Gizakion elkarrenganako eragina ulertuz, gizartea hobetzen ahaleginduko dena.
- Begirunea, elkarrizketa eta lankidetzaz izango dituen harremanen oinarri.
- Ikuspegi, jarrera, irizpide eta jokabide desberdinak aberastasun iturri gisa ikusten dituen.
- Norberarenak ez diren izaera, erlijio, pentsaera nahiz bestelako desberdintasunekiko begirunea duena
- Norberaren askatasuna beste gainerako guztiena bezainbeste balioesten duena.
- Euskara erregistro guztietan erabiltzeko prestatua.
- Hizkuntza normalizatuei dagozkien eremu guztietan euskara erabiltzeko gaitua.
- Euskararen bultzatzaile dena.
- Hizkuntza ekoizpenez hausnarketak egiten dituen jarduna hobetze aldera.
- Euskal Herriko kultur ondarea ezagutu eta balioesten duena, munduko gainerako herrien ondareak bezainbeste.

- Euskal Herriak munduarekin izandako harreman modua ezagutzen duena, eta gertatutakoak gertatu ziren testuinguruan ulertzen ahalegintzen dena.
- Gainerako herri eta kulturekiko interesatua. Besteren hizkuntzak ere badakizkiena.

3.1.2. Hezkuntza- xedeak (VI. Batzarra)

A. Bizitza guztirako hezkuntzaren xedea.

Euskal Curriculumean, hau proposatzen da bizitza guztirako hezkuntzaren helburutzat:

“Norberaren, gizartearen eta naturaren errealitateak kritikoki ulertzeko, horietan eraginkortasunez ekiteko eta arduraz eraldatzeko baliabideak ematean datza hezkuntzaren xedea, era horretara, pertsonak, gizabanako gisa, gizartekide eta izadikide gisa ahalik eta konpetentzia gehien gara dezaten”



Oiertzok giza garapen handiena lortzen laguntzen die bere ikasleei.

- Norbanako edo izaki gisa; horrek, ikasle bakoitza, besteekin batera bere biografia eraikitzen duen subjektu autonomo moduan identifikatzea eskatzen du.
- Gizarteko kide gisa; horrek, ikasle bakoitza, kulturantzatasuneko marko batean euskaldun legez identifikatzea eskatzen du.
- Naturako partaide gisa; horrek, ikasle bakoitza, kosmosaren eta lurraren barruan giza espezieko partaide eta izaki bizidun legez identifikatzea eskatzen du

B. Hezkuntzaren xedeak Hezkuntzaldirako:

Oinarrizko Hezkuntzaldiaren xedeak ere baliagarri dira batxilergorako, bizitza guztirako hezkuntzaren etapa den heinean. Hauek dira giza nortasunaren garapen betea iristeko xedeak:

- Ikasleak unean-uneke egoerei egoki erantzuteko eta helduen bizitzan sartzeko eta norbanako subjektu moduan osotasuneko bizitza bizi ahal izateko, gizartearen partaide eraginkor diren herritar izateko eta natura gorde eta garapen eusgarria gauzatzeko konprometitutako pertsonak izateko gai izan daitezen prestatzea da
- Ikasleek euskal kulturako eta kultura unibertsaleko oinarrizko elementuak berenganatzea lortzea eta ondorengo ikasketak egitera joateko nahiz lan munduan sartzeko behar den bermearekin prestatzea da.
- Ikasleak sentiberatu eta gaitu beren bizitza osoan zehar ikasketak iraunkorki eta etengabe egiteko eta garatzeko gai izan daitezen.

3.1.3 Oinarrizko konpetentziak: metadiziplinarrak eta arlokoak

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak (2006) zortzi oinarrizko konpetentziak gomendatzen ditu bizitza osorako hezkuntza iraunkorra bultzatzeko asmoz:

1. Ama hizkuntzan komunikatzea
2. Hizkuntza arrotzetan komunikatzea
3. Matematika eta Zientzia eta Teknologia arloetako oinarrizko konpetentziak
4. Konpetentzia digitala
5. Ikasten ikastea
6. Gizarte konpetentziak eta gizabide konpetentziak
7. Ekimen zentzua eta enpresa espiritua

8. Kultura kontzientzia eta kultura adierazpena.

LOEk (2006) ezarritako araudia oinarrian bat dator nagusiki europar gomendioarekin, eta ikastolek oso baikorki baloratu dute “Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumuma” deituak egindako proposamena. Proposatzen diren hezkuntza konpetentzia orokorrak hauek dira: ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, norbera izaten ikastea, egiten eta ekiten ikastea.

Hezkuntza-konpetentzia orokorrak bitartekari dira alde batetik hezkuntza-helburuen lorpenean, eta bestetik ikasgai guztietan sartu behar diren prozedura- eta jarrera-edukietan eragingarri bihurtuta, Europako Parlamentuak gomendatu eta Espainiako eta Frantziako araudiek ezarritako zortzi oinarrizko konpetentziak lortzea ahalbidetzen dute.

Oinarrizko konpetentziak dira bizitzako eremu eta egoeretan moldatzeko ezinbestekotzat jotzen direnak. **Konpetentzia metadiziplinarrak** ikasgai guztientzat berak dira eta eremu eta egoera guztietarako balio dute. **Arloko konpetentzia espezifikoak**, berriz, testuinguru espezifikoagoetan aritzeko dira beharrezkoak.

KONPETENTZIA METADIZIPLINARRAK

Konpetentzia metadiziplinarrak erreferentziako ardatz nagusia dira nola oinarrizko hezkuntzarako hala bizitza osorako hezkuntzan, eta hezkuntza-testuinguru guztietan ikasten dira, bai testuinguru formaletan bai eta informaletan ere.

Konpetentzia horiek arloetako konpetentzia espezifikoetan eta eguneroko bizitzako eskolaz kanpoko egoera informaletan integratuz ikasten dira.

1.- Ikasten eta pentsatzen ikastea

- Modu esanguratsuan interpretatzen du informazioa (pentsamendu ulerkorra), informazioa sortzen du (sortzeko pentsamendua) eta informazioa modu kritikoan ebaluatzen du (pentsamendu kritikoa).
- Baliabide kognitiboak erabiltzen ditu, hala nola metakognizioa, jokabidearen erregulazioa, jokaera estrategikoa, eta ikasitakoa beste egoera batzuetara eramaten du.

2.- Komunikatzen ikastea

- Ahoz eta idatziz jarioasunez, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez komunikatzen da.
- Modu integratu eta harmoniatsuan erabiltzen ditu hitz gabeko hizkuntzaren, hizkuntza artistikoaren eta hizkuntza matematikoaren oinarrizko kodeak.
- Gizarteko komunikabideak modu eraginkor eta autonomoan erabiltzen ditu.
- Tresna eta baliabide teknologikoak (IKT) trebeziaz, arduraz eta modu kritikoan erabiltzen ditu.
- Euskal gizarteko eta munduko errealitate sozio-komunikatiboa modu kritikoan interpretatzen du, eta modu arduratsuan eta zentzu etikoz parte hartzen du inguruko komunikazio-prozesuetan.

3.- Elkarrekin bizitzen ikastea

- Besteekin interakzio positiboa mantentzen du arreta jarriz eta entzuteko jarduera aktiboa hartuz; enpatia erakusten du, behar duenari lagunduz, eta hitzarmen eta arau sozialak betez.
- Indarkeria erabili gabe irtenbideak aurkitzen ditu elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez.
- Modu aktiboan parte hartzen du eskolako testuinguruan eta handik kanpora.

- Pertsonekin taldean lan egiten du, elkarlanaren bidez partekatutako eginkizunetan helburu komunak lortzeko.
- Ezberdinak diren eta ezberdin pentsatzen duten pertsonak onartzen eta errespetatzen ditu.

4.- Norbera izaten ikastea

- Emozioak kontrolatzen ditu, eta jokabideak erregulatzen ditu lortu nahi dituen helburuetara bideratuz.
- Auto-estimua baikorra eta errealista du, bere buruarenganako konfiantza eta besteengandik estimatua eta balioetsia sentitzean oinarrituta.
- Bere kasa pentsatzeko, erabakitze eta jarduteko autonomia du, eta hartutako erabakien ardura bere gain hartzen du.

5.- Ekiten eta egiten ikastea

- Informazioa jasotzen eta ulertzen du, eta gogoeta egiten du inguratzen duen errealitateaz.
- Ideia eta irtenbide berriak bilatzen ditu, eta errealitatea hobeto planteatzen du, gaur egungo errealitateari dagokionez alternatibak proposatuz.
- Proposatutako errealitatea gaur egungo errealitatearen alternatiba gisa gauzatzeko beharrezko ekintzak egiten ditu.
- Egindako ekintzek sortzen duten benetako inpaktua ebaluatzen du.
- Horren guztiaren helburua da ekintzaile-prozesuarekin jarraitzea (prozesu jarraitua).

ARLOKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Dagozkien diziplina-eremuen bidez lortzen dira arloetako konpetentzia espezifikoak, modu diziplinatuan, diziplina artekoan edo globalizatuan, eta eremu horietan konpetentzia metadiziplinarrak orokorrak txertatuta.

Hezkuntza-konpetentzia metadiziplinarrak, bitartekari dira alde batetik hezkuntza-helburuen lorpenean, eta, bestetik, ikasgai guztietan sartu behar diren prozedura- eta jarrera-eremuetan eragingarri bihurtuta, Europako Parlamentuak gomendatu eta Espainiako eta Frantziako araudiek ezarritako zortzi oinarritzko konpetentziak lortzea ahalbidetzen dute.

Arloko konpetentzia espezifikoak zehazteko galdetu behar da zein ekarpen egiten dion arlo edo gai bakoitzak ikasleak une honetako bizitzako interes eta oinarritzko beharrei erantzuteko eta helduaroan garrantzitsutzat jotzen diren jardueraren eremu eta egoeretan moldatzeko prestakuntzari.

1.- Hizkuntzak eta Literatura: Hitzeko eta literaturazko konpetentzia komunikatiboa

Ikastolen Taldeak onartutako hizkuntzekiko lortu beharreko konpetentzia mailaren arabera, ikaslea gai da, euskaraz (B2), beste hizkuntza ofizialean (gaztelania edo frantsesa) (B2) eta nazioarteko komunikaziorako hirugarren hizkuntza batean (B1) bere bizitzako eremuetan, egoera bakoitzak eskatzen duen ahozko zein idatzizko hizkuntzaren erabilera egokia eta eraginkorra egiteko. Era berean, badu kultura literarioa, Euskal Herrikoa nahiz unibertsalak, inguratzen duen mundua eta bere burua hobeto ulertzen lagunduko diona.

2.- Matematika: matematika-konpetentzia

Ikaslea, herritar arduratsu gisa, gai da matematikak gizartean duen funtzioa identifikatzeko, ulertzeko eta ezagutza matematikoa erabiltzeko, oinarri sendoko arrazoiketarako eraikiz eta

matematikaren berriazko pentsamendu eta adierazpen moldeak erabiliz, haren bizitzako beharrei erantzun eta arazoei irtenbidea eman ahal izateko.

3.- Teknologia: teknologia-arloko kompetentzia

Ikaslea gai da teknika eta ezagutza zientifikoak zentzuz eta arduraz praktikara eramanez, arazo praktikoei irtenbidea emateko eta gizakion behar eta desirak asetzeko bizitzako hainbat eremu eta egoeratan.

4.- Musika eta Dantza: arte-komunikaziorako kompetentzia

Ez da propio lantzen.

5.- Plastika eta Ikus adierazpena: arte-komunikaziorako kompetentzia

Ez da propio lantzen.

6.- Gorputz Hezkuntza: gorputz-komunikaziorako kompetentzia

Ikaslea, duen jokabide motorrarekin, bere buruarekin, inguru sozialarekin, kulturalarekin eta fisikoarekin oreka bilatzeko gai da.

7.- Gizarte Zientziak: gizarte-kompetentziak eta gizabide-kompetentziak

Ikaslea gai da bere bizitzako eremuetan eta egoeretan gizarte zientzietako ezagutzak eta metodologiak erabiliz, bere burua, kide den taldea eta bizi den mundua ulertzeko, eta horren ondorioz, hiritar arduratsu moduan gizarte demokratiko eta anitz baten alde aritzeko.

8.- Natura eta Osasun Zientzia: zientzia-arloko kompetentziak

Ikaslea gai da bizitzako hainbat eremu eta egoeratan, ezagutza eta metodologia zientifikoak erabiliz, bere burua eta natura ulertzeko, eta bere buruari buruz eta giza jokabideak mundu naturalean eragiten dituen aldaketei dagokionez erabaki arduratsuak hartzeko.

9.- Tutoretza eta Orientazioa

Ikaslea gai da erabakiak hartzeko eta bere bizitza zentzuz bideratzeko, bere ibilbidea aukeratzeko eta egindako aukeren ardura izateko, bizitzako hainbat eremu eta egoeratan, eta, bereziki, gai da bere interes eta gaitasunekin bat datorren aukera akademikoa edo lan-aukera zein den erabakitzeko, ohartuki, bere burua eta errealitatea ezagututa.

3.1.4 Arlo guztietarako metodologiaren ardatzak

Irakasteko metodologia, ikaslearen ikaskuntza prozesua ondo bideratzeko aukeratzen den bidea izanik, eragile askoren baitan dago. Arlo bakoitzak izaten du irakasteko eta ikasteko berriazko metodologia, baina arlo guztietarako baliagarria izango den norabide komun baten ildokoa izan behar du beti ere.

Metodologiak oinarri hauek izango ditu gurean:

- *Integrazioaren pedagogia*

Ikaslearen irteera profila oinarritzat hartuz, ikaslea egoera esanguratsuetan eta arazo konplexuen aurrean jartzea da. Ikasleak, arazo horri irtenbide egokia emateko, ikasitako guztia (kontzeptuzko ezagutzak, egiteko prozedurak, barneratutako jarrerak), era pertsonalizatuan eta integratuan mobilizatzen eta transferitzen asmatu behar du.

Arazo guztiak ezin direnez era bakarrean ebatzi, egoera bakoitzaren ezaugarrien araberako metodologia egokitua erabiltzea sustatuko da.

- *Ikuspegi sozio-erakitzailea*

Dimentsio soziala: Ikasleak pertsonalki eraikitzen ditu ezagutzak, besteekin interakzioan.

Dimentsio eraikitzailea: Ezagutza zaharrak eta berriak elkarren artean erlazionatuz eraikiko dira ezagutza berriagoak.

Dimentsio interaktiboa :Eskolako ikaskuntzak egoera batzuetan lortzen dira, eta egoera horiek dira, gainera, ezagutza berriak bereganatzeko eta aurretik zeuzkateneekin integrazeko iturri eta ebaluaziorako erreferentzia.

3.2. IRAKASLEAREN PROFIL OROKORRA

Irakaste jardueraz arduratzen dena da irakaslea. Jarduera horrek ikasleen gaitasunari eragiteko irakaskuntza eta ikasketa sustatu behar ditu.

Zuzendaritza taldeak izendatzen du lanposturako.

Hezkuntza proiektua aurrera eramaten lagundu behar du, bereziki:

- Irakasle-ikasleen arteko egokitzapenean.
- Irakasle eta gaien arteko koordinazioan eta pedagogia premietan.
- Pedagogia eta diziplina alorretako irizpideak finkatzen, zikloko ikasleen ezaugarrietara egokituta.
- Ikasleen garapen eta ezaugarriak kontuan izanik, helburu lorgarriak finkatzen.
- Ebaluazio eta berreskuratze irizpideak finkatzen, ikasleen heldutasuna sustatzeko.
- Bere ikasgaiaren edukietan eta didaktikan eguneratua egonez.
- Bere ikasgaia programatuz, denboraren arabera antolatuz eta mailakatuz.
- Pedagogia eta didaktika irizpideak ikasleen ezaugarrietara egokituz, eta haien gaitasunak suspertzeko estrategiak prestatuz.
- Eskolak emanez erabaki diren pedagogia eta didaktika bideak aintzat hartuz.
- Gelan eta dagoen tokietan ordena eta diziplina ezarri eta betearaziz.
- Ikasleen bertaratzearen kontrola eramanez.
- Gainerako klaustrakideekin ebaluazio bateratua eginez.

3.3. FAMILIA ETA GIZARTE HEZITZAILEAREN ERAGILE EREDUA


Gurasoak edo legezko tutoreak dira seme-alaben lehen eta legezko hezitzaileak eta irakasleekin batera, bere berariazko eginkizunetatik, ikaslearen nortasuna osatzen lagunduko dioten giro egokia lortu behar dute. Horretarako:

- Ahalegin behar dute ikasleari gizarteko talde desberdinetan partaide sentiarazten, familia, gela, lagun-talde eta herriko partaide izaten.
- Ahaleginduko dira ikasleak beti aurkitu dezan bere adierazpenak egiteko konfiantzazko giroa guraso eta irakasleen artean.
- Guraso eta irakasleen harremanak heziketa-arazoetan irekiak eta orekatuak izango dira, elkar oztopatu gabe eta leialak eta egiazaleak, pertsonaren heziketa baitago jokoan.

- Guraso eta irakasleek, seme-alaben heziketari dagozkion erabakiak hartzerakoan, haien asmoak eta iritziak hartuko dituzte kontuan, hezten ari den subjektuaren heldutasunaren arabera.

4. GOBERNU ETA FUNTZIONAMENDU EGITURA

4.1. ORGANIGRAMA



4.2. PATRONATUA

Oiartzo Batxilergo Ikastola Fundazioko Patronatua, Oiartzo Batxilergo Ikastolako titularra izanik, bertako organo gorenaren da. Bere osaketa eta funtzionamenduari dagozkion zehaztapenak fundazioaren estatutuaren jasota daude.

FUNTZIOAK

Ikastolaren titularra izatetik letozkiokeenak. Horien artean:

- Estatutuak aldatzea eta onestea.
- Ikastolako hezkuntza-proiektua eta barne araudia aztertu eta ebaztea.
- Urteko egoera-balantzea, galera-irabazien kontua eta aurrekontuak aztertu eta ebaztea.
- Ikastegiko Urteko Plana onestea.
- Pedagogi arloko plangintzak, aztertu ondoren, ebaztea.
- Oiartzoko zuzendaritza taldearen jarraipena egitea, proposamenak jaso eta ebaztea.
- Oiartzo, Haurtzaro eta Orereta ikastoletako osatutako Jarraipen Batzordearen informazioa eta proposamenak jaso eta ebaztea.
- Batzordeko kideen eta kargu-aldaketak erabakitzea, behar bezalako zergatia baldin badago.
- Zuzendaritza (zuzendaria eta zuzendaritza talde osoa) aukeratze eta izendatzeaz arduratzea.
- Langileen profila onartzea.
- Langileen aukeraketa eta kontratazioak onartzea.
- Langileen esparruko diziplina erabakiak hartzea.
- Ikasleak onartzea.
- Ikasleen arau-hausteen inguruan, Hezkuntza Batzordeak proposatutako neurriak erabakitzea (berretsi edo berriak proposatu).
- Proiektuaren helburu estrategikoak bideratzeko ardura hartzea, horretarako beharrezkoak liratekeen gogoetak, egitasmoak, baliabideak.... Ahalbidetuaz.
- Ikastolako proiektu eta errendimendu eskolarra jarraitzea, eta ondorioz eratorriko liratekeen neurriak abian jartzeko ardura hartzea.
- Instituzio gatazketan irteerak aurkitzeko ardura hartzea.
- Hainbat erakunderekin elkarlanean jarduteko hitzarmenak ebaztea.
- Era guzietako ondasunak eskuratu, eduki eta inorenganatzea, obligazioak hartu eta ekintzak egikaritzea.
- Ondarea eta bere inbentarioa zaintzea.
- Eraikinetan eta ekipamenduan egin beharreko inbertsio nagusiak ebaztea.
- Instalazioen mantentze-lanari eta kontserbazioari jarraipena egitea.
- Sari eta zehapenei dagokienez, beharrezkoak diren erabakiak hartzea.

- Fundazioaren helburuak bete daitezen zaintzea.
- Agindu zaion eginkizun soziala hobeki bete dezan, ikastegiaren jarduera zuzenari legokiokeen beste edozein.

4.3. ESKOLA KONTSEILUA

Hezkuntza komunitatea [titularrak, gurasoak, langileak, ikasleak (dagokienean)] biltzen duen ordezkartza-organoa da, ikastolaren jardunari jarraipena egin eta dagozkion proposamenak erabaki-guneetara eramateko.

OSAKETA.

Eskola Kontseilua hamabi kidez osatuko da:

- Lau, Patronatuaren ordezkariak (lehendakaria, lehendakariordea, Orereta ikastolako zuzendaria eta Haurtzaro ikastolako zuzendaria)
- Bi gurasoen ordezkariak, maila bakoitzetik bat.
- Bi, irakasleen ordezkariak,
- Bi, ikasleen ordezkariak, dagokien gaitan
- Bi, Zuzendaritza. Zuzendaria bera eta honek hautatutako taldekide bat.

HAUTAKETA ETA IRAUPENA.

- Patronatuko ordezkariak Patronatuak zuzenean aukeratuko ditu.
- Gurasoen ordezkariak Guraso Batzordeak urte beterako gutxienez aukeratuko ditu, izendapena luza daiteke eta ahal dela maila bakoitzak ordezkaria izango du.
- Irakasleen ordezkariak Irakasle Klaustroak urte beterako gutxienez aukeratuko ditu, eta izendapena luza daiteke.
- Ikasleen ordezkariak urtebeterako aukeratuko ditu, eta izendapenak luzatu daitezke. Aukeraketa barne araudian jasotzen den prozedura jarraituz egingo da.
- Lehendakaria eta Lehendakariordea Patronatukoak izango dira.
- Idazkaria Eskola Kontseiluak berak hautatuko du.

Berezko epea bukatu baino lehen, edonork utz dezake kargua, uztearen arrazoiak Aholku Batzordearen Lehendakariari idatziz agertuz.

BILERAK ETA FUNTZIONAMENDUA.

Ohiko bilerak hiru hilabete behin edo bitan burutuko dira.

Ez-ohiko bilerak batzordekideen erdiaren eskariari jarraituz deituko dira.

Bileretako deia Lehendakariari dagokio. Bileraren deia eta gai zerrenda gutxienez hiru egun lehenago jarriko da batzordekideen eskura.

Hezkuntza Batzordeko Idazkariak bileren akta jasoko du.

Funtzionaltasunaren eta operatibitatearen izenean, azpibatzaordeak edo unean uneko lantalde teknikoak sor ditzake Aholku Batzaordeak, beharrendaren arabera.

FUNTZIOAK.

- Ikasturtearen jarraipen orokorra egin, abiabide zuzena daramala ziurtatzeko eta hala ez balitz arreta-guneak antzeman eta zuzentzeko proposamenak egin.
- Estamentuen aldetik ikastolaren jarraipen zehatza eginez, jatorri desberdinetako (Patronatua, irakasleak, ikasleak ...) informazioa modu eragingarrian konpartitzeko gune izan.
- Bereziki arreta jarri ikasleen errendimenduari, irakasleen jardunari eta zerbitzuen kalitateari. Atal horietan gerta daitezkeen gabeziak antzeman eta irtenbideak proposatu erabaki guneetara.

Pedagogi arloaren gestioa

- Pedagogi arloko plangintza edo urteko plana ezagutu, aztertu, ekarpenak egin eta ekarpenik balego bideratu, Patronatuak hori guztia kontuan hartuta azken ebazpena har dezan.
- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, dagokionean, aztertu eta ekarpenak bideratu, Patronatuak azken ebazpena har dezan.

Administrazio arloaren kudeaketa

- Urteko egoera-balantzea, galera-irabazien kontua eta aurrekontuak proposatzea Patronatuan aurkezteko, honek azken erabakia har dezan.
- Administrazio arloaren jarraipena, azterketa eta orientazioa burutzea.
- Gurasoek ordaindu beharreko kuotak proposatzea, Patronatuan aurkeztu eta honek azken erabakia har dezan.
- Ondarea eta bere inbentarioaren kudeaketaren jarraipena egin.
- Eraikuntza mailan eta ekipamenduan egin beharreko inbertsio nagusietarako, dagokionean, proposamenak egitea, Patronatuak erabaki dezan.
- Instalazioen mantentze lanen eta kontserbazioaren jarraipena egitea.

Beste

- Urteko memoria osatzea, ondoren Patronatuan onartzeko.
- Barne Araudia proposatzea, dagokionean, Patronatuan onartzeko.
- Ikastolan bizikidetzaren arazoak sortuz gero, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, eta gatazken konpontze baketsua bideratuko duten neurri eta ekimenak bultzatzea.
- Bertako administrazio zein gizarte erakundeekin, eta beste ikastetxe eta entitateekin, kolaborazio irizpideak finkatzea, helburu partekatuetarako.

4. 4. LEHENDAKARIA

HAUTAKETA ETA IRAUPENA.

Fundazioaren estatutuetan ezarritako baldintzak jarraituko ditu.

FUNTZIOAK.

Patronatuko lehendakaria izaki, Hezkuntza Batzordeko lehendakari modura honen abiabide zuzenaren arduradun nagusia izango da.

4.5 GURASO BATZORDEA

Nahi duten guraso guztiek dute Guraso batzordean parte hartzeko aukera, gutxienez gela bakoitzeko ordezkari bat egon behar du. Bolondresik ez badago zozketa egingo da gurasoen artean.

Oro har, guraso bakoitzak bi urte besterik ezin izaten ditu egin batzorde horretan, bere seme edo alabak beste horrenbeste besterik ez duelako egingo Oiartzon. Horrek oso izaera ezegonkorra eragiten dio batzordeari.

Ez dauka erabakitze ahalmenik. Proposamenak egin ditzake guraso ordezkariak Hezkuntza batzordera eraman ditzaten.

Urtean lau bat aldiz biltzen da, edo maizago, beharrik ikusten bada.

4.6 HAURTZARO-ORERETA-OIARTZO KOORDINAZIOA TALDEA (HOO)

Oiartzo ikastolako jarduera Orereta Ikastola eta Haurtzaro Ikastolaren jarraipena izan dadin, koordinaziorako sortutako esparrua da.

Zuzendariek osatu eta sustatuta, eta beharra ikusiz gero, ikasketaburuek ere parte har dezakete.

Proposamenak egiten dizkio Patronatuari, hark erabakiak har ditzan.

FUNTZIOAK:

1. Hiru ikastetxeen arteko harremanak ziurtatu eta sendotu, Oiartzo jarraipena den proiektua izan dadin proiektu pedagogikoari dagokion esparruetan. Hobekuntza proposamenak egin patronatuari,
 - Eremu curricularra:
 - DBHn hasi eta Batxilergoan jarraipena duten irakasgaien koordinazioa bermatu.
 - Ebaluazioa: ebaluazio irizpideen eta ebaluatzeko moduaren koherentzia ziurtatu.
 - Bizikidetzaren eremua:
 - Ikasleen eskubide eta bete beharren aplikazioa modu koherentean bideratu.
 - Gurasoen asebetetze maila jaso eta hobekuntza proposamenak eskatu
 - Ikasleen asebetetze maila jaso eta hobekuntza proposamenak eskatu

- Tutoretza eta orientazioa eremua:
 - Gurasoekin harremana: guraso bilera orokorrak, bakarkakoak.
 - Ikasleekin harremanak: bakarkakoak. Tutore-ikasle, irakasle-ikasle
 - Plangintza egiterakoan, behar liratekeen nahiz sobera leudekeen giza baliabideei erantzuna emateko, elkarrekin patronaturako proposamenak adostu.
2. Aurreko puntuak aztertu, momentuko auleziak eta indarguneak identifikatu eta hobekuntza proposamenak egin patronatuan.
 3. Elkarren artean antolatu beharreko ekintzak planifikatu eta zubi lana egin(abenduko ekitaldia, matrikulazio eta aurrematrikulazioa...)

FUNTZIONAMENDUA, ANTOLAKETA

1. Gutxienez hiru bilera egingo dira urtean
2. Bilera deialdiak Oiartzoko zuzendariak egingo ditu

5. KUDEAKETA-EGITURA

5.1. ZUZENDARIA

Jardunbide estrategikoak aurreikusi, proposatu eta erabaki-guneetan ebatzitakoa kudeatuko dituen da. Ikastolaren kudeaketa ekonomiko, pedagogiko eta administratiboan ardura orokorrak beregain izango ditu. Zuzendaritzarekin loturik dauden funtzioak zuzenean edo delegazioen gaineko ardura eramenez beteko ditu beraz.

HAUTAKETA, IRAUPENA ETA ARDURA BANAKETA.

Patronatuari dagokio zuzendaria hautatzea, baita ere horretarako prozedura finkatzea.

Zuzendariak proposatuko dio Patronatuari, honek ebatz dezan, zuzendaritza taldea nola eta nortzuek osatuko duten.

Modu arruntean hiru urtetik behin egingo da zuzendariaren lanaren balantzea, eta horrez gain Patronatuak hala iritziko dionean.

Zuzendaria hiru urtetarako aukeratuko da, eta berraukeratua izan daiteke, mugarik gabe. Dena den, nahi duenean utz lezake erabaki propioz edo Patronatuak hala erabakita. Batak zein besteak erabakia ofizialki jakinarazitako unetik efektiboki gauzatu artean bi asteko tartea utziko dute gutxienez.

Patronatuaren ardurapean egongo da.

Ikastolan lan egiten duten guztiak zuzendariaren esanetara egongo dira.

Zuzendaria ardura hori hartu aurretik Oiartzoko, Hautzaroko edo Oreretako langilea bazen, kargua uztean bere azken lanpostura itzultzeko eskubide urraezina izango du.

Zuzendariak hautatuko du bere ausentzian ordezkoa zein izango duen zuzendaritzako kideen artean.

FUNTZIOAK.

Honako hauek izango dira Zuzendariaren funtzioak besteak beste:

Errepresentazio funtzioak eta informatzaileak

- Funtzionamenduarekin lotuta dauden arlo pedagogiko-administratiboetan ikastolaren ordezkaritza ofiziala eramatea. Ziurtagiriak eta dokumentu ofizialak sinatzea.
- Ikastolak inguruko erakundeekin eta bereziki hezkuntza arloarekin zerikusia duten erakunde administratibo nahiz sozialekin (Ikastolen Elkartea Partaide, Udala, herriko beste ikastetxeak, PAT, Talde multiprofesionalak, Hezkuntza Saila...) izan beharreko harremanak kudeatzea.
- Ikastola-komunitate osoak (guraso, irakasle eta ez irakasle, ikasle...) ikastolari buruz behar duen informazio guztia izan dezan arduratzea eta bere kasuan, iritzia jasotzea.
- Zuzendariak harreman etengabekoa eta iraunkorra izango du Eskola Kontseiluarekin, Ikasketa Buruarekin, Orientazioburuarekin, Irakasle Klaustroarekin eta Orereta eta Hautzaro Ikastoletako zuzendariarekin. Halaber harremanak izango ditu Administrari,

Idazkaritza, zerbitzu osagarri eta mantentze lanetarako arduradunekin eta behar den guztietan ikasle eta gurasoekin.

Funtzio dinamizatzaileak

- Ikastolako hezkuntza komunitatean partaidetza eragiten saiatzea, erlazio giro ona zainduz eta mantentzen saiatuz. Bereziki, irakasle taldea dinamizatzeaz arduratuko da.
- Ikastolaren langile eta eragileen gaurkotzea eta egokitzea eragitea eta bideratzea, ahalmenen eta araudiaren aginduak beteta (lan hitzarmena, barne araudiak...).
- Hezkuntza komunitateko kideei harrera ona egiteko prest egotea, Zuzendaritzak duen xede entzule, animatzaile eta zuzentzailea betez.
- Diziplina kasu larrietan Barne Araudiak eta legeak dioten zereginak kudeatzea.

Funtzio koordinatzaileak

- Ikastolara adskribitua dagoen pertsonalaren jarraipena egitea.
- Patronatuari zuzendaritza taldea onarpenerako proposatzea.
- Zuzendaritza Taldea koordinatzea eta honen eraginkortasuna eragitea izango da zuzendariaren koordinazio lanik garrantzitsuenak.
- Ikastolako egitura pedagogiko orokorrak koordinatzea.
- Orereta eta Haurtzaro Ikastolekin koordinaziorako beharrezko harremanak antolatzea.

Planifikazioari eta programazioari buruzko funtzioak

- Urteroko egitasmo eta txosten edo memoria pedagogikoak prestatzea Eskola Kontseiluari eta Patronatuari aurkezteko.
- Maila bakoitzaren arlo/ordu banaketaren antolaketa burutzea.
- Ikasketaburuarekin batera ikasturteko irakasle eta gelen ordutegiak egitea eta betetzen diren zaintzea.
- Urteko planean jasotzen den irakasle adskripzioa egitea eta bakoitzaren egitekoa finkatzea eta Eskola Kontseiluari aurkezteko.
- Ikasketaburuaren eskutik irakasleek gauzatu behar dituzten programaketetarako laguntzak bideratzea.
- Ikastolako lana sistematizatzen duten dokumentuen sorketaz eta aplikazioaz arduratzea: proiektu curricularra, programazioak, berrikuntza planak, barne araudiak...
- Ikastolaren beharren arabera, epe labur nahiz luzerako egitasmo pedagogikoak prestatzea Hezkuntza Batzorderi aurkeztuz.
- Irakasleen ordezkapenak garaiz antolatzea.
- Irakaskuntzako jarduerak eskatzen duen guraso-irakasleen arteko harremanetarako bilerak zehaztea.
- Ikastolak, urtero, izan ditzakeen jarduera osagarri nahiz eskolaz kanpoko egitasmoak sustatu eta bultzatzea, Ikasketaburuarekin batera.
- Ikastolako pedagogia zerbitzuen ardura eramatea, hala nola: liburutegi, ikus-entzunezko, informatika gela...

- Eraikuntza, instalakuntza eta altzarien beharrak programatzea eta beren mantentze beharrak zaintzea, titularren onespenerekin.
- Ikasle berrien matrikulatze prozesuaz arduratzea.

Funtzio administratzaileak

- Patronatuak markatu duen aurrekontu ekonomikoen zuzenbidea antolatzea, Administrariarekin batera.

Funtzio juridiko-laboralak

- Patronatuak eskuordetzen dizkion ardura juridikoei aurre egin beharko die zuzendariak.
- Arlo laboraleko erantzukizuna ere bere gain dago, honen garapen teknikoa administrariari badagokio ere. Zuzendariaren eginkizun zehatzak dira, besteak beste:
- Langileriaren beharren aurreikuspenak egitea eta hutsuneen perfila diseinatzea. Gainera, onarpen guztietan parte hartuko luke, araudiaren arabera.
- Langileriaren eginkizunak erregulatzea eta jarraitzea, eskola-egutegiak, asistentzia, puntualtasuna... Organigrama funtzionalean lanpostuen adskripzioak izendatu.
- Lan harremanak kudeatzea, Lan Hitzarmenaz eta arlo laboralari dagokion legediaz baliatuz.
- Beheragoko mailetan konpondu ez diren kexa eta eskariei erantzutea.
- Oiertzo Batxilergo Ikastolako beste dokumentuak: Estatutuak, Hezkuntza Proiektua, Barne Araudia, izkribu eta aktak gordetzeaz arduratzea.

Funtzio ebaluatzaileak

- Arlo pedagogikoaren antolakuntza eta funtzionamendu orokorra ebaluatzea.
- Urteko egitasmo orokorrak ebaluatzea.

5.2. IKASKETABURUA

Zuzendariaren ardurapean, ikasketaburua pedagogi arloaren funtzionamenduaren zuzeneko erantzulea da. Ikasketaburua Zuzendaritza taldearen partaide da.

HAUTAKETA ETA IRAUPENA.

Zuzendariak proposatuko dio Patronatuari Ikasketaburu lana nork betetzea nahi duen, eta, ados badago, Patronatuak onetsi.

Ikasketaburua hiru urterako izendatuko da, eta berraukeratua izan daiteke, mugarik gabe. Hala ere lehenago utz dezake kargua, erabaki propioz edo arduetan bere gainetik leudekeneen erabakiz.

FUNTZIOAK.

Informatzaileak

- Zuzendariak eska diezaiokeen edozein txosten pedagogikoren prestaketa burutzea.
- Antolamendu eta plangintza pedagogikoaren martxaz, irakasle, ikasle eta gurasoen aurrean buru izatea

Buru izatea

- Hezkuntza komunitateko kideen artean elkarbizitza, begirunea eta tolerantzia zaintzea, araudiak baliatuz.

Planifikazioa eta programazioa egitea

- Arlo pedagogikoaren eginkizunak planifikatzea eta urteko plangintza pedagogikoa diseinatzea, Zuzendariarekin elkarlanean.
- Irakasleek egin beharreko urteko oinarritzko programazio orokorrak (ikasturtean zehar landuko diren gaien oinarritzko aukeraketa...) jasotzea ikasturte hasieran.
- Programaketa hori Ikastetxe Planean agertzen denarekin konparatzea, eta egon daitezkeen adostasun ezak, hutsuneak edo zalantzak irakasleekin argitzeaz arduratzea, horretarako irakasle taldearen bileren markoa erabiliz.
- Ondoren, eta ikasturtean zehar, programazio horien jarraipena, kontrola eta doiketa egitea, irakasleei beharrezkoa zaien laguntza eskainiz, programazioak ahalik eta era egokienean bete daitezen.
- Zuzendariarekin batera antolaketa akademikoa egitea eta betetzen den zaintzea.

Koordinatzea

- Zerbitzu pedagogikoen arduradunak eta baliabideak koordinazioa.
- Ekintza osagarrietako aktibitateak koordinatzea eta bideratzea.
- Programazioa, orientazio eta tutoretza plangintzaren arabera, tutoreen egin beharra zuzentzea eta koordinatzea.
- Gaietako programazio, metodologia, pedagogi teknikak eta planak koordinatzea ikastetxearen plangintzaren arabera, proiektu curricularraren arabera eta urteko planaren arabera. Era berean, Orereta eta Haurtzaro Ikastolekin koordinazio pedagogikoa bideratzea Ikastola hauetako ikasketaburu eta etapako zuzendariarekin batera.
- Ikastolako egitura pedagogiko orokorrak koordinatzea, zuzendariarekin batera.
- Orereta eta Haurtzaro Ikastolekin koordinaziorako beharrezko harremanak antolatzea, zuzendariarekin batera.

Ebaluatzea

- Etapako eta Orereta/Haurtzaro/Oiartzo arteko koordinaketa ebaluatzea.
- Bere ardurapean dauden aktibitate didaktikoen ebaluazioa burutzea.

Harremanak

- Ikasketaburuak harremana mantenduko du Zuzendariarekin, Idazkariarekin, Klaustro eta behar den guztietan irakasle, guraso eta ikasleekin.

Beste

- Zuzendariak horrela eskatuz, bere esparruari dagokion edota Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan jasotzen den beste edozein funtzio betetzea.

5.3. ORIENTAZIOBURUA

Ikasleen orientazio akademiko eta profesionalaren erantzule da. Zuzendaritza Taldeko partaide da.

HAUTAKETA ETA IRAUPENA

Zuzendariak proposatuko dio Patronatuari Orientazioburuaren lana nork betetzea nahi duen eta, ados badago, Patronatuak onetsi.

Orientazioburua hiru urterako izendatuko da, eta berraukeratua izan daiteke, mugarik gabe. Hala ere, lehenago utz dezake, berak horrela erabakita edo bere gaitetik legokeen beste edonork erabakita.

FUNTZIOAK

- Ikasleen orientazio akademiko eta profesionalean eta matrikulazio kanpainan, paper nagusia izango du, nahiz eta tutoreek ere lehenengo esparru horretan zeregina izan.
- Orientazioan, 1. mailako ikasleei 2. kurtsoari begira, gaien aukeraketan lagundu eta aholkatuko die. 2. mailakoekin ahalegin berezia egingo du aholkularitza profesionalean, ikasketa unibertsitario nahiz Lanbide Heziketari buruzko informazioa ahalbidetuz.
- Era berean, unibertsitate desberdinetako orientazio programen berri emango du, eta bertan parte hartzeko antolaketa aurrera eramango du, ikasketaburuaren eta zuzendariaren laguntzaz.
- Ikasleekin ikastola barruan egingo diren orientazio-ekimenetarako, berak antolatuko ditu beharrezkoak diren markoak, jarduera akademikoa ahalik eta gutxien aztoratua.
- Gurasoen kezka eta informazio eskaerei erantzungo die, orientazioari dagozkien gaitetan.
- Matrikulazio kanpainan, DBH. 4. mailako ikasleen orientazio prozesuan parte hartuko du: ikasle eta gurasoei eskaintzen zaien Oiartzoko aurkezpen-ekimenetan, ikasleekin lan-saioetan... zuzendari eta ikasketaburuarekin batera.

Hori guztia dela eta, etengabeko harremana izango du zuzendari eta ikasketaburuarekin, eta elkarlanean arituko da haiekin.

5.4. ZUZENDARITZA TALDEA

Ikastolaren kudeaketaren funtzionamendurako organo kolektiboa da Zuzendaritza Taldea.

KONPOSIZIOA ETA ERABAKIAK.

Zuzendariak, ikasketaburuak eta orientazioburuak osatzen dute. Eta horrela beharko litzatekeen uneetan Administrariak ere bai. Erabakiak adostasunez hartzen saiatuko dira, eta hau ez balego, zuzendariak, ikastolako funtzionamendu orokorraren arduradun gisa, hartuko luke erabakia.

FUNTZIOAK ETA EGINKIZUNAK.

- Zuzendaritza taldearen funtzio nagusia plangintza koordinatuak eta oinarrizko jarduerak burutzea litzateke, beti Ikastolako Plangintzaren eta Patronatuaren ildotik bideratuta.
- Urteko plangintza era egokian burutu dadin beharrezkoak diren giza eta material baliabideak aztertzea.
- Ikastolak bere jardura pedagogikorako behar duen material suntsigarria bereganatzea.
- Irakasleen asignazioak burutzeko eman beharreko pausoak eta koordinazioak lantzea.

5.5. IRAKASLEA

Oiertzo ikastolaren eginkizuna, ikusmira eta balioak errealitate bihurtzeko oinarrizko estamentua da irakasleria. Zuzendaritza, orientazioa, tutoretza eta diziplina arlo desberdinetako irakaste jardunak gizartearen eta ikastolaren hezkuntza helburuak lortzera zuzenduak izango dira.

Irakasleria irakastearen eragile behinena da eta ikasleen formakuntza integrala garatzen laguntzea eta egunerokotasunean euskararen erabilera sustatzea dira bere eginbehar nagusiak.

FUNTZIOAK

- Ikastolako Hezkuntza eta Curriculum proiektuetan eraginkorki esku-hartzea.
- Curriculum proiektua geletako errealitatera egokitzea.
- Ikaslearen garapen eta gaitasunak eragitea, irakaskuntzako jardueren bidez.
- Landu dezakeen edo ditzakeen arloen programazioak aurrez finkatzea, arloko, mintegiko nahiz klaustroko beste irakasleekin alderatuz eta koordinatuz.
- Bere ardurapean dagoen ikasle bakoitzaren nortasun nahiz ezaugarri akademikoen ahalik eta ezagutza sakonena bereganatzea, aurreko tutore eta beste irakasleen ahozko zein idatzizko eta ikaslearen eguneroko behaketaren informazioak erabiliz.
- Irakasleen zailtasun ezberdinez arduratzea.
- Irakasleen integrazioan laguntzea, bai bere taldean, bai ikastolako eguneroko bizitzan ere.
- Irakasleen jarrera parte-hartzailea bultzatzea.
- Tutoreak bere gain daukan ikasleaz eskatzen dion informazioa ematea, eta hala behar izanez gero, gurasoekin elkarrizketatzea.
- Ebaluazio saio egunetarako ikasleen kalifikazioak garaiz prestatzea.
- Behar duten ikasleekin bere arazo, jokabide, kezka, portaera eta lan errendimenduaz hitz egin eta baloratzea.
- Lan-ohitura eza nabarmena, zein diziplina kasu larrietan, beharrezko ikusten dituen neurriak hartzea, arazoa konponbidean jartzeko.
- Ikastolako lan-ordutegia betetzea.
- Irakasleen klaseetako asistentzia kontrolatzea eta tutoreak informatzea.
- Bidalitako etxeko lanen kontrola eramatea.

- Geletan behar den ordena eta diziiplina bideratzea.
- Klaustro, maila, mintegi bilera ofizial guztietara joatea, eta hutsegite kasuetan Zuzendaritzari arrazoiak agertzea.
- Bere eguneratze eta berritze zientifikoaz arduratzea, arloko beste profesionalekin koordinatuz.

5.6. IRAKASLE-TUTOREA

Tutorea ikastalde bateko ikasle bakoitzaren hezkuntza prozesuaren bultzatzailea da.

Zuzendaritzaren ardurapean, bere mailako tutore eta irakasleekin koordinatuko du bere lana.

Tutoreak, irakaslea denez, irakasleari atxikitako funtzioez gain, beste hauek ere baditu:

FUNTZIOAK.

- Ikasleen ikastea orientatu eta gidatzea.
- Zuzendaritzaren ardurapean, irakasle edo tutore taldeak landutako tutoretza prozesua garatzea.
- Ikasleei taldean eta eskola-bizitzaren osotasunean integratzen laguntzea eta ikasle horiengan jarrera parte-hartzailea sustatzea.
- Ikasle eta irakasleen arteko harremanak hobetzeko eta arazoak konpontzeko lehen mailako bitartekari izatea.
- Bere ardurapean dagoen taldeko ebaluazio-prozesua koordinatzea, ikasleei buruzko informazioa bilduz, eta ikasle bakoitzeko zein taldearekiko hezkuntza eta jokabideen proposamenak jasoz eta garatuz.
- Ikasturte hasieran ikastaldeko gurasoekin biltzea ikasturteko planifikazioaren berri emanez. Era berean, ikasturtearen erdialdera ikasle bakoitzaren jarraipenaren berri emanez, banakako bilerak egitea, guraso eta ikasleekin. Hauez gain, tutoreak zein gurasoek beharrezkoa ikus dezaketenean.
- Gorabeherak edo arazoak aurreikus daitezkeenean edota gertatu direnean, ikasle edo/eta gurasoekin elkarrizketatzea, soluzio bideak irekiz eta zuzendaritza jakinaren gainean jarriaz.

5.7. KLAUSTROA

Ikastolako irakasle guztiak ordezkaritza bakarrean egituratzen dituen taldea da eta beraz, informazioa elkar trukatzeko gune ofiziala. Ikastolako Zuzendaria izango du buru.

BILEREN MAIZTASUNAK.

Urte hasieran egutegi laborala egiten denean finkaturiko maiztasuna eta iraupena izango dute bilerek.

FUNTZIOAK ETA EGINKIZUNAK.

- Zuzendariaren gidaritzapean eguneroko jarduerarekin lotutako gaien aurrean erabakiak hartzea, gai akademiko, nahiz diziiplina arazo...
- Hezkuntza Batzorderako bere ordezkariak hautatzea.
- Hauteskunde sindikal garaietan, Langileen Ordezkaritza aukeratzea.
- Ikastetxeko Proiektu Curricularra lantzea.
- Ikastolako urteko plangintzaz proposamenak egitea.
- Ikastolako Hezkuntza eta Curriculum Proiektuetako irizpide orokorretan eraginkorki parte-hartzea eta proposamenak egitea.
- Ikasleen orientazio eta tutoretza funtzioen plangintzan parte hartzea, zuzendariaren gidaritzapean.
- Formazio aktibitateen programez, eskolaz kanpoko ekintzez eta osagarriez informatzea.
- Ikerketa, esperimentazio eta metodologia esparruan ekimenak sustatzea.
- Ikasleen berreskurapen eta ebaluatze irizpide orokorrez zuzendariaren gidaritzapean erabakitzea.
- Eskolaz kanpoko jardueraz proposamenak egitea.

6. FUNTZIONAMENDU ADMINISTRATIBOA

6.1. ADMINISTRARI BURUA

Administrazio eta zerbitzu arloetako kudeaketaren arduraduna izango da Administraria.

Patronatuak aukeratuko du.

FUNTZIOAK.

Planifikazioari eta Programazioari buruzko funtzioak

- Administrazio alorreko memoriaz arduratzea eta Patronatua informatzea.
- Eginkizun administratiboa programatzea eta koordinatzea.

Funtzio Administrazioaileak

- Arlo honetako dokumentu burokratikoak kudeatzea.
- Administrazio eta ziurtagiri liburuez arduratzea.
- Patronatuaren, eta Hezkuntza Batzordearen orientazioen baitan, eta Zuzendariarekin elkarlanean, administrazioaren ardura hartzea.
- Korrespondentzia jaso eta banatzea, ofizialak diren dokumentuak datatuz eta artxibatuz. Halaber, Oiartzotik bidaltzen direnak, bideratzea.
- Hezkuntza Administrazioa zein beste erakunde batzuetara bidali behar den dokumentazioa, zehatz bete eta garaiz bidaltzea: idazkiak, kontzertazioko agiriak, ikasleen aktak, Segurantzako Sozialeko agiriak, IRPFak etab.
- Nominak, Aseguru Sozialak, alta eta bajak egunean edukitzea.
- Kobrantza eta ordainketak egitea eta errezibuen itzulketak kontrolatu eta eguneratzea, horrek suposatzen duen gestioaren lehen arduradun eta erantzule izanez.
- Finkatutako Kontabilitate Egitamu Orokorraren eragiketa kontable guztiak burutu eta artxibatzea.
- Beste zenbait zerbitzu osagarriren –eskolaz kanpoko ekintzak...- kudeaketa ekonomikoaz arduratzea, Hezkuntza Batzordea informatuz.
- Aurrekontuen eta gastuen arteko orekaz arduratzea.

Funtzio Koordinatzaileak

- Garraio eta garbiketa zerbitzuak programatzea, jarraitzea eta irizpideak finkatzea.
- Zuzendariak eta ikasketa-buruak behar dituzten euskarri administratiboak eskaintzea.
- Ikastolan dugun zerbitzuetako pertsonalgoaren ardura operatiboa eta koordinazioa eramatea (administrazioko pertsonala, mantentze lanetarako pertsonala eta garbitzaileak).
- Zuzendariaren delegazioz eta bereziki gai teknikoetarako beharrezkoak diren kanpoko harremanak (Federazioa, Udala....) jorratzea eta mantentzea.
- Harreman estuak mantentzea zuzendari eta irakasleekin bere lanarekin zerikusia duten gaietan.

- Hezkuntza komunitateko edozein kideri erantzuteko prest egotea, bere laneko gaitetan.

Funtzio Ekonomikoak

- Aurrekontuen prestaketan parte hartu, Patronatuak onarturiko lan ordainak pertsonalgoarentzat, ikasleen kuotak, administrazioaren diru laguntzak, eta gertatu beharreko inbertsio nahiz gastuak, besteak beste, gogoan hartuz.
- Inbertsioak, gastuak, sarrerak, kuotak..., eta egin beharreko ordainketa guztiak (soldata...) kontabilizatu, burutu eta egitea, aurreikuspenetan oinarrituz.
- Zuzendariarekin batera ekonomia helburuak betetzeko ratioak finkatzea.
- Kontabilitate erregistroei jarraipena egitea eta urteroko emaitza kontuak eta ekonomia egoera Patronatuari aurkeztea.
- Beharrezkoak diren eta Patronatuak edo Zuzendariak eskatzen dizkion txosten ekonomikoak idaztea.
- Diru sarrerak eta gastuak kontrolatu eta baimentzea. Bankuetxe nahiz kutxekin hartu emanak zuzendu, tesoreriaren kudeaketaz arduratzea.
- Eskolako beste zerbitzuen –eskolaz kanpoko ekintzak, garraio, eta abarren– kudeaketa ekonomikoaz arduratzea.
- Eta orokorki Patronatuak erabaki ditzakenak.

Ekipamendu eta mantentze lanei buruzko funtzioak

- Ikastolako inbentarioaren arduraduna da eta eguneratua edukitzeaz arduratuko da.
- Mantentze-plangintzaren ardura eramatea eta horrela behar denean ekipamendua behatzea.
- Zenbait egoera berezitan, eta gehienbat obra garaietan, beraien kontrol zuzena eramatea eta ondo gauzatu daitezen arduratzea.
- Baliabide pedagogiko garrantzitsuenen inbentarioa egin eta eguneratzea.

Funtzio juridiko-laboralak

- Irakasle ez diren langileen jarraipena egitea: absentismoa, mugikortasuna, funtzioak...
- Zuzendariarekin batera arlo juridiko-laboral honetan har ditzaketen erabakiak teknikoki aurrera eramatea: Lan Hitzarmenaren interpretazioari buruzkoak, langileen ordezkariekin izan beharreko harreman teknikoak, kontratu berrien gauzatzea...
- Dokumentu eta Legediaren artxiboa osatzea eta eguneratuta edukitzeaz arduratzea.
- Haurtzaro ikastolako aseguruaren gaiak arduratzea: erantzukizun zibilerako poliza, istripu-aseguruak eta eraikuntzako aseguruak.

Funtzio informatzaileak

- Aldian aldiz Azpiegitura, Lan-lege, Ekonomia eta Administrazio gaiez zuzendaria eta Patronatua informatzea.
- Urteroko emaitza kontuak eta finantza-egoeren berri zuzendariari eta Patronatuari ematea.